

Bixente Serrano Izko

Bakezaletasuna vs. pazifismoa

N

ago mundu zabal honetako jende gehien-gehienok bakezale garelakotan, denok, gutxiengo patologiko edo gerra-negoziante bat salbu. Ez daukat horren garbi, ordea, jende gehien-gehienok pazifista ote garen. Nik neuk, neure buruaz mintzo, ez daukat horren garbi. Erran nahi baita: sinetsita nago, bai horixe, jende guztiok, gerlari gehienak barne, eta aipaturiko gutxiengo hori izan ezik, bake egoerak nahiago ditugula gerrakoak baino; alta, duda-muda kontaezinetan galdurik nabil pazifismoaren ideologiari, pazifismoaren ideia eta sinetsimen multzoari, haren ondorioei ere, eusteko gai ote garen.

Ideologiaren arloan –kontzeptuaren zentzurik garbien eta positiboenean, hau da, bihotza eta adimena bat egiten dituen arloan– kokatzen dut pazifismoa; nahiaren eta zaletasunaren arloan, lehentasun naturalen eta sentimendu sano baina sakon pentsatu gabeen arloan, aldiz, bakezaletasuna. Nago Carlo Levik “hain biziro maite zuten bakea, non prest ez baitzeuden ez eta haren alde ere borroka egiteko” erran eta jarrera hura salatu zuenean, bakezaleak zituela gogoan, ez prezeski pazifistak. Pazifistak, bakezale anitz ez bezala, borrokalariak direlako: era baketsuan beti ere, baina borrokalariak, ez gutxitan errepresio zuzena, kartzela eta heriotza ere jasateko prest dauden borrokalariak, edozein gatazkatan kausa baten alde.

Bada, ez nago seguru maila honetako pazifista ote naizen. Borrokalaria, nire maila apal eta itxura osoz antzuan, bai; baina pazifista, edozein gatazkatan? Horretaz ez nago horren seguru, eta gezurra erranen nuke pazifista naizela erranen banu. Baina erran behar dut, aldi berean, hagitx gehiago miresten ditudala pazifistak, izengabeenak ere, gerlariak baino, hauek diren distiranteenak ere, diren martiri handienak ere, diren kausa justu baten aldeko zintzoenak ere. Miresten dut *Che*, miresten ditut Txabi Etxebarrieta, *Txikia*... baina aruntago miresten ditut Luther King edo Gandhi, alegia.

Historialari naizenez, ongi bai ongi dakit biolentzia izan dela Historiaren emagina. Baina historialari tituluak ez dit



JOSU SANTESTEBAN

dohainik ematen igarle izateko: ez dit dohainik ematen ondorioztatzeko etorkizunean ere horrela izanen denik beti, halako legea izanen bailitzan. Horrexegatik miresten ditut pazifistak, sinetsita daudelako ez dagoela Historia-legerik, sinetsita daudelako Historia bera ere, Historiaren ibilbidea, alda dezakegula, etorkizun izan dezakegun garai batean gatazkak eta istiluak, guztiak, konponbiderik izanen dutela gerra bideetatik kanpo. Utopia halakoa, zinez miresgarria! Hain miresgarria, non beldurrak ere bainago horrekin sinesteak nora eramanen ninduken.

Pazifista baldin banaiz, *hic et nunc*, hemen eta orain nauzue; hemen, Euskal Herrian; eta orain, gaur bertan, aspaldian eta luzarorako. Historialari izateaz gain eskarmentudun eta historiadun naizenez, aspaldian: ikusi dudalako nora eraman gaituen bakezale batzuen pazifismorik

Ez nago seguru maila honetako pazifista ote naizen.
Borrokalaria, nire maila apal eta itxura osoz antzuan, bai;
baina pazifista, edozein gatazkatan? Horretaz ez nago
horren seguru, eta gezurra erranen nuke
pazifista naizela erranen banu

ezak; historialari naizenez, luzarorako, bi arrazoiengatik: batetik, Historia-lege batean ere sinesten ez dudalako, sinesten dudalako gure eskuetan dagoela orain arteko Historiaren izaera tamalgarri hori, biolentziaren alabatasun deitoragarria, aldatzea behingoz; eta bigarrenik, Europako mendebaldean bederen, oztupoak oztupo, Estatu agintariaren maltzurkeriak maltzurkeria, tresna etiko-politiko, ideologiko eta filosofiko dezente ditugulako, eta gure gizartearen eskarmentuak horixe eskatzen digulako, bide baketsuetatik borrokatzeko. ■